

VI. ERANSKINA

2016ko APIRILAREN 15eko ERABAKIA

SGIkerreko goi mailako teknikaria (Osasun Arloa/Animaliategia)

Kategoria profesionala: Osasun arloko/Animaliategiko goi mailako teknikaria.

Espezialitatea: Osasun Arloa/Animaliategia

PROZESUAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Bigarren oinarriaren b) baldintza:

- Doktoregoa
- Zientzia Esperimentaletako lizentzia/gradua, edo arlo biosanitarioko lizentzia/gradua.
- Esperimentaziorako eta beste helburu zientifiko batzuetarako erabilitako animaliak babesteari buruzko urriaren 10eko 1201/2005 EDn aurreikusitako gaikuntza berezia: D kategoriako langileentzako eskatutako titulu ofiziala edo aipatutako EDren hirugarren xedapen iragankorrean aipatutako esperientzia baliokidea, 53/2013 Errege Dekretuak, otsailaren 1ekoak, ezarritakoaren arabera. Dekretu horren bidez, esperimentaziorako eta beste helburu zientifiko batzuetarako –irakaskuntza barne– erabilitako animaliak babesteko aplikagarriak diren oinarritzko arauak ezartzen dira.

EGINKIZUNAK:

1. Esperimentazio animalien koloniak langapean haztea, mantentzea eta kontrolatzea: transgenikoak.
2. Animalia immunodeprimituak mantentzea eta manipulatzeko, patogeno espezifiko batez infektatutako animalia gisa, eta horretarako isolamendu ekipamenduak edo mikroisolatzaileak erabiltzea.
3. Eme umedunak lortzea, data ezagututa. Horretarako egingo dira, batetik, frots baginalen prestakuntza mikroskopikoak, non ziklo estralaren egoerak ikus daitezkeen, eta, bestetik, koagulatze tapoien bisualizazio makroskopikoak.
4. Lagin biologikoak lortzea eta markatzea, genetikoki aldatutako banako bakoitzaren genotipatua egiteko, bai knockout, knockin, animalia heterozigotoena bai wildtypeena.
5. Animalien osasun eta ongizate egoera kontrolatzeko laginak lortzea, esperimentazio prozesuaren faseetan, hots: esperimenduaren aurretik, esperimendua egin bitartean, eta esperimenduaren ondoren.
6. Animaliategiko unitate funtzional bakoitzaren (berrogeialdi, produkzio, mantenu eta esperimentazio guneak) giro baldintzak kontrolatzea (hezetasuna, tenperatura eta egun/gaua argi zikloak kontrolatzeko ekipamendu informatikoak programatzea).
7. Profilaxi lanetan parte hartzea: Uraren eta Animaliategian erabilitako material guztiaren higiena, desinfekzioa eta esterilizazioa, horren estatu makrobiologikoaren eta segurtasun mailaren arabera.
8. UPV/EHUko eta beste organismo publiko eta pribatuetako nahiz industria arloko ikertzaileei aholkularitza zientifikoa ematea, Animaliategiko Zerbitzuan dagoen azpiegituraren erabilera egokiari buruz.
9. Animaliategian dauden animalien jatorriaren eta xedearren kontrola eta trazabilitatea (software espezifiko baten bidez), eta zer ikertzaileei esleituta dauden jakitea.
10. Akreditazio prozesuan dauden ikertzaileei esperimentazio animaliak erabiltzeari buruz eskainitako prestakuntza ikastaro espezifikoetan parte hartzea.

GAIAK:

1. **Gaia.** Etika eta legedia. Animaliekin egindako esperimenduen etika batzordeak. Animalien esperimentazioari eta babesari buruzko Europako eta Espainiako legedia.

- 2. Gaia.** Animalia ereduak, esperimentazioan.
- 3. Gaia.** Laborategiko animalien biologia: karraskariak, lagomorfoak eta anfibioak.
- 4. Gaia.** Karraskariak: Ugalketa eta hazkuntza. Ernaldia kontrolatzea. Markatzea.
- 5. Gaia.** Esperimentazio ereduak, haien genetikaren arabera.
- 6. Gaia.** Animalien aldaketa genetikoa. Mutagenesia eta transgenesia. Animalia transgenikoen koloniak kudeatzea.
- 7. Gaia.** Instalazioak eta ostaturak. Arlo funtzionalak. Diseinua, banaketa eta materialak. Instalazio teknikoak eta ekipamendua. Giro baldintzak kontrolatzea.
- 8. Gaia.** Estandarizazio mikrobiologikoa. Hesiak eta gunek babestuak.
- 9. Gaia.** Osasun kontrola, animalietan. Karraskarien, ontzien eta anfibioen patologia. Osasun egoeraren interferentzia, esperimentazio emaitzekin.
- 10. Gaia.** Nutrizioa eta elikadura. Dietak eta erregimenak.
- 11. Gaia.** Animalien ongizatea. Zorroztasun indizeak, amaiera puntuko irizpideak. Gainbegiratzeko protokoloak. Giroa egokitzea. Estresa.
- 12. Gaia.** Karraskarien, lagomorfoen eta anfibioen anestesia, analgesia eta eutanasia.
- 13. Gaia.** Oinarriko prozedura esperimentalak: substantziak ematea eta laginak hartzea.
- 14. Gaia.** Metodo alternatiboak.
- 15. Gaia.** Biosegurtasuna. Zoonosia, alergiak, arriskuak eta kontrola. Norberaren babeserako ekipamendua eta ekipoa.
- 16. Gaia.** Kalitate kontrola. Laneko protokolo normalizatuak. Datuak jasotzea eta erabiltzea.
- 17. Gaia.** Laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistemak, unibertsitatean. Prebentzioa kudeaketan txertatzea. Erantzukizunak esleitzea. Langileen parte hartzea, lan arriskuen prebentzioan. Ordezkaritzako eta partaidetzako organoak.
- 17. gaia.** 4/2005 Legea, Otsailaren 18koa, Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako: legearen xedea. Printzipio orokorrak. Administrazio araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak.

BIBLIOGRAFIA GOMENDATUA

2010/63/UE Zuzentaraua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, 2010eko irailaren 22koa, zientziarako erabilitako animaliak babesteari buruzkoa.

32/2007 Legea, azaroaren 7koa, ustiatzean, garraiatzean, hiltzean eta esperimentatzean animaliak babesteari buruzkoa. (2007ko azaroaren 8ko BOE, 268. zk.)

[6/2013 Legea, ekainaren 11koa, ustiatzean, garraiatzean, hiltzean eta esperimentatzean animaliak babesteari buruzko azaroaren 7ko 32/2007 legea aldatzen duena](#) (2013ko ekainaren 12ko BOE, 140 zk.)

53/2013 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, esperimentaziorako eta beste helburu zientifiko batzuetarako –irakaskuntza barne– erabilitako animaliak babesteko aplikagarriak diren oinarritzko arauak ezartzen dituena. (2013ko otsailaren 8ko BOE, 34. zk.)

Ciencia y tecnología del animal de laboratorio J.M.Zúñiga, J.M.Orellana eta J.A.Tur .Ed. UAH 2008

Manual de genética de roedores de laboratorio. Principios básicos y aplicaciones. F.J. Benavides and J.L.Guénet. Ed.UAH 2003

Principios de las Ciencias del Animal de Laboratorio. Van Zutphen, Baumans and Beynen. Ed: SECAL 1999

www.secal.es (Laborategiko Animalien Zientzietarako Espainiako Sozietatearen webgunearen helbidea)